

50

urteko irakaskuntza lankidetzan

Urteurrrena







Con la colaboración de

Obra Social

Caja Vital  Vital Kutxa

Gizarte-Ekintza

Pedagógica San Prudencio
Sdad. Cooperativa de Enseñanza

Declarada de Utilidad Pública

c/ Duque de Wellington, 4

Tels.: (945) 17 19 57 • 17 19 58 • Fax: (945) 17 36 36

e-mail: administracion@colegiosanprudencio.net

01010 Vitoria-Gasteiz



“Berrogeita hamar urte, zein azkar joaten zaizkigun urteak!”

URKEZPENENA

Ezinbestekoa ematen du gure Irakaskuntza-Kooperatibaren 50 urteko historia aztertzea, zeren aurtan, 2004-2005 ikasturtean, efemeride hori ospatzen baitugu. Urrun dugu jadanik esperientzi honen hasiera, 1954. urtea, alegia. Urte horretan guraso talde batek elkartea sortu zuen eta modu ofizialean Vitoria-Gasteizko Arte eta Lanbideen Eskolako geletan beste irakaskuntza-entitate bat ireki zuen.

Ordutik hona gorabehera handiak izan ditugu, eta, zalantzarik gabe, agerian utzi behar dugu hasierako une horiek zailak izan zirela eta lan handia egin behar izan dugula esperientzia hori aurrera ateratzeko. Baina gaur egun Vitoria-Gasteizko gurasoen Irakaskuntza Kooperatibarik zaharrena dugu.

Guraso, irakasle eta Kooperatibako beste langile askoren ahaleginari esker, gazte-belaunaldi ugari balioetan oinarritutako heziketa jaso dute, eta heziketa hori dela-eta, pertsona moduan hazi dira eta heldutasunean agertuko zaizkien erronkei aurre egiteko trebatu dituzte.

Kooperatiba ereduari esker, guraso askok hezkuntza-proiektuan parte hartzeko aukera izan dute eta haien seme-alaben heziketaren arduradun ere izan dira (hezkuntza modu zabal eta kooperatiboenean ulertuta). Denon artean kalitate oneko hezkuntza-proiektua abian jarri dugu. Hezkuntza-proiektu hori hobekiaz hautatzean oinarritu beharrean, aukera berdintasunean eta integrazioan oinarrituta dago, non tolerantzia eta solidaritatearen balioak funtsezko erreferente izan diren. Gure hiriaren errealitatean finkatutako proiektua da eta ereduzko ibilbidea egin du.

Oraintxe aurkezten dizuegun argitalpen honekin, San Prudencio Irakaskuntza Kooperatibaren sorreraren 50. urteurrena ospatzeko egingo ditugun jardueren artean, gure Kooperatibaren historia eta egindako ibilbidea, aurkeztu nahi dizuegu, zenbait ikuspuntutik abiatuta, zeren historia birpasatu gabe ezin baitugu oraingoa ulertu eta konprenitu, ezta etorkizunerako ditugun helburuak eta erronkak ere. Argitalpen honetan gaur egungo izaeraren alderdirik garrantzitsuenak ere nabarmendu nahi ditugu, bai eta zer nolako errokak ditugun ere, erronka horiek guztiak lortzeko Kooperatibaren kide guztien laguntza eta parte-hartzea behar izango baitugu.

Kontseilu Errektorea

Pedagógica San Prudencio, Sociedad Cooperativa de Enseñanza

SAN PRUDENCIO ATZO

AURREKARIAK

Egiaz, Eskolak 1954. urtea baino lehen du bere jatorria, irakurketa eta idazketa irakasteko sistema batekin esperimentatzen hasi zuen akademia batean, alegia. Sistema horrek onomatopeia-sistema zuen izena, eta Toledoko M. Martín Sanabria irakasleak diseinatu omen zuen.

Aldi bereko irakurketa eta idazketa irakasteko onomatopeia-sistema muskuluen mugimenduan eta fonemetan oinarritzen da batez ere, eta “Junta Nacional contra el Analfabetismo” izenekoak hautatu zuen M. Martín Sanabriak diseinatutako metodoa herrialde honetan analfabetismoari aurre egiteko. Halaber, “Estado Mayor Central del Ejército”k,

metodoaren efikazia ikusita, metodo hori erabiltzea agindu zuen Erregimentuetan errekruta analfabetoei irakasteko.

ELKARTEAREN JAIOTZA

Vitoria-Gasteizko Arte eta Lanbideen Eskolan, onomatopeia-metodoarekin esperimentatzen hasi ziren haur-talde batekin, M. Cámara irakasleak egindako materiala erabiliz. Dena dela, hainbat gorabehera zirela-eta, esperientzia horrek ez zuen jarraipenik izan. Beraz, guraso talde batek horrekin jarraitzea erabaki zuen eta, horretarako, elkarte bat sortu zuen. Taldeak 1954. urtean elkarte legalizatzea lortu zuen, bai eta administrazio-baimena ere modu ofizialean beste heziketa-etxe bat irekitzeko.



Gure ustez garai horretan hasi zen San Prudencio Eskolaren irakaskuntza-jarduera, gurasoen beraien kontrola-rekin, eta dagoeneko eskolak mende erdia bete du. Adin horretara heltzea lortu du gainera nahiz eta askotan gainditu behar izan dituen baldintzak aldekoak izan ez diren.

BERE EZAUGARRIAK

Ditugun dokumentazioen artean sakonduz gero, San Prudencio Elkarte Pedagogikoaren bereizgarri batzuk antzeman ditzakegu. Bereizgarri horien arabera, hasiera-hasieratik nabarmendu zuten garrantzi handikoa zela gurasoen parte hartzea seme-alaban heziketan. Beste ezaugarri bat ondokoa da: sortuko zuten entitatea irabazi-asmorik gabekoa izan behar zuen.

Lehen Estatutu Sozialak 1954ko abuztuaren 10ean erregistratu zituzten Arabako Gobernu Zibilaren Elkartearen Erregistroaren Liburuaren



228. folioan. Estatutu horietako 2. artikulua araberan San Prudencio Elkarte Pedagogikoaren xedea ondokoa da: “el desarrollo de la misión docente con la participación máxima de los padres en esta obligación natural suya, por medio de la fundación y mantenimiento de centros de enseñanza, ayuda a los existentes, cursillos, conferencias, publicaciones y cuanto tienda a la existencia y mejoramiento de actividades de enseñanza”. 14. artikuluan, berriz, ondokoa dio: “Acordada la disolución de la Asociación, se dará cumplimiento a las obligaciones pendientes por medio de la Junta Liquidadora y si hubiera remanente de dinero se destinará a centros de enseñanza gratuitos y principalmente a la Escuela de Artes y Oficios”



Orditik hona, eta nahiz eta urte asko igaro diren, ezaugarri bera du eskolak eta gurasoek arrotza gainera: gurasoak seme-alaben Eskolaren jabeak izatea. Halaber, orain dela gutxi kooperatiba “onura publikokoa” izendatu dute, eta horren araberan, beste zenbait baldintzekin batera, ondokoa bete behar du: ezin du irabazi-asmorik izan.

Urte horietako beste ezaugarri bat zen zenbait gizarte-kapako ikasleak zituztela. Horixe bera jaso zuen Vela jaunak 1958ko martxoaren 21eko “Voz de España”n izenpetutako artikuluan. Artikulu horrek, halaber, ikastetxe horren beste

bitxitasun bat nabarmentzen zuen: gurasoek seme-alaben heziketari erantzuteko eta horretaz arduratzeko zuten konpromiso librearen ondorioz sortutako ikastetxea zen.

Aztertu beharra dugu zein izan diren ikastetxearen arrakastaren arrazoiak, norbaitek uste dezakeelako arrakastaren arrazoiak eskolaren prezio baxuak zirela (prezio horiek nahiko merkeak baitziren). San Prudencio Eskolara erosteko ahalmen nahikoa zuten familietako seme-alabak ere etorri zaizkigu, nahiz eta ikasle horiek historia luzeagoko eta baliabide gehiagoko eskoletara joateko aukera ere bazuten. San Prudencio Eskolak egin behar pedagogikoari beste giro bat eman zion, modu modernoak eta irekitasunaren aldeko joerak sartu zituen, eta alde batera utzi zituen —edo behintzat baretzen saiatu zen—, une politikoaren ondorioz ikasleek, irakasleekin batera, egunero-egunero egin behar zituzten zenbait jarduerak (himnoak, abestiak, aginduak, etab.)



SAN PRUDENCIO ATZO



Horrek argituko luke zergatik ekonomia-giro oso desberdineko ikasleak hartzeaz gain, familiak ere ideologia-giro desberdinekoak ziren, eta horrek ez zuen gatazka edo liskarrik sortzen. San Prudencio Eskola Vitoria-Gasteizko eta Arabako gizartearen izaera liberalaren adibide argia da.

AITZINDARIAK PARTE-HARTZEN ETA BERRITZEN

Dena dela, San Prudencio Eskolak, egoera hain ezegonkorra izanik, beste ekarpenaren bat egin behar izango zuen hezkuntza-eremuan bere historiaren hasierako urte horietan zutik irauteko; eta onartu behar du gu berritu egin zuela eta

ordura arte hemen ezagutzen ez genituen egiteko modu batzuk erabili zituela.

Agian garrantzitsuena ez da beti gehien ikusten duguna, eta seguru aski San Prudencio Eskolaren arrakastaren arrazoietakoa bat (eta gutxiagotan ikusi zena) Zuzendaritzako Batzordeko kideen eta gurasoen eta irakasleen arteko harremanean oinarritu zen, larunbatero biltzen baitziren. Bilkura horietan eskolaren eguneroko gertaerak aztertzen zituzten, estrategiak planifikatzen zituzten eta beste ekintza eta proposamen batzuk diseinatzeko zituzten, eta batzuetan ekintza eta proposamen horiek abangoardiakoak ziren. Gainera, Eskolan hasten ziren irakasleei tutoretzak egiten zizkieten eta hango lan egiteko modua irakasten saiatzen ziren.

Bestalde, eta horien garrantzia ukatu gabe, San Prudencio Eskola garrantzitsuago bihurtuko zuten beste alderdi batzuk genituen. Alderi horiek eragin zuzena zuten eskolan bertan, eta horien artean ondokoa nabarmendu dezakegu: ikasleek erraztasun handiarekin ikasten zuten

idazten era irakurtzen.

IRAKURKETA ETA IDAZKETA

Haurrek ikastaroa irailean hasten zuten, eta bost urte bete behar zituzten abenduaren 31a baino lehen. Baina abenduan dagoeneko bazekiten irakurtzen eta idazten. Gabonak heldu baino lehen gurasoak Eskolara joaten ziren eta jendaurrean seme-alabei arbelean hitz bat idazteko eskatzen zieten bai eta egunero erabiltzen zituzten kartiletatik lerro batzuk irakurtzeko ere.

Batzuek uste zuten hori ezinezkoa zela, eta anekdota gisa kontatu dezakegu Elkarteko Presidenteak, Emilio Álava jaunak, Ricardo Buesa Jaunari afari bat irabazi ziola azken horren bilobak abenduan San Prudencio eskolara joan eta zerbait idatzi eta irakurri zuenean.

Eskolak berezko instalaziorik izan ez duenez, ez du agiritegi zabalik, baina eskolak hasitako ekimenak egiaztatzeko 1957/58 ikasturteko Memoria dugu. Memoria horretan egindako jarduerak biltzen dira, eta kontuan izan behar dugu jarduera horiek ez zirela oso ohizkoak garai horretan:

1957 -1958 IKASTURTEKO MEMORIA

Nahiz eta zailtasun handiak izan, azkenean ikasleek Judizmendiko Klubean igeriketako klaseak emateko aukera izan zuten, lehendabiziko aldiz izan zen. Hurrek puntuazio ona lortu zuten amaierako probetan, eta zenbait trofeo eta domina lortu zituzten.

FILATELIA

Zaletasun hori sustatzen jarraitu zuten, baina Eskolak ezin izan zuten atzerriko beste eskola batzuekin harremanetan jarri zigiluak trukatzeko. Beraz, horixe izango litzateke hurrengo ikasturterako proiektua.

XAKEA

Ikasturte amaieran txapelketa bat egin zuten eta azkenean Arabako Xake Federazioaren txapeldun batekin jolastu zuten, eta haur batek txapeldunari irabaztea lortu zuen.

ESKOLAKO JAIAK

Ohiko jaiak ospatu zituzten: irakasleen santuak, Errege magoen desfilea eta Prudentzio Deunaren antzerki-saioa.

" MARCELINO " ZINEKLUBA

Elkartek sortutako Eskola Zineklubak hiriko guztientzat zabaldua zegoen, eta garapen bikaina izan zuen ikasturte horretan, gutxi gorabehera ehun bat proiektu egin baitzituzten. Udan Zuzendaritzako Batzordeko kide bat Tolosara gonbidatu zuten Hezitzaileen Kongresu batean hitzaldi bat ematera, Zineklubaren funtzionamenduari buruz hitz egin behar zuen. Udazkenean Lizarra eta Tolosako haur-zineklubak inauguratu zituen.

APAIZGAIAK

Iazko ikasturtean bezala, udarako zerbitzu hori eskaini zieten nahi zuten hurrei.

BILBORAKO BIDAIA

Lehendabiziko aldiz hurrek ikasketa-bidaia egin zuten, Bilbora joan ziren, eta bidaiak hurrengan eragin hezitzaile bikaina izan zuela uste izan zuten. Jende asko harritu egin zen hurrek Bizkaiko hiriburuan erakutsitako heziketa egokia dela-eta.

IGANDEKO IRTEERAK

Aurreko ikasturtean nagusienak igande goizetan txangoak egiten hasi ziren, guraso-talde txiki batekin joaten ziren, boluntario moduan joaten ziren guraso horiek.

SAN PRUDENCIO ATZO



BATERAKO HEZKUNTZA

Dena dela, memoria horretan ez zuten eskolaren jarduera bat jaso (agian garai horretan ezin zelako egin), nahiz eta San Prudencio Eskolaren beste ezaugarri bat izan: baterako hezkuntza, hau da, neskak eta mutilak elkarrekin zeuden eta elkarrekin hezten zituzten.

LANKIDETZAN ARTE ETA LANBIDEEN ESKOLAREKIN

Deigarria izan daiteke fundatzaileek Vitoria-Gasteizko Arte eta Lanbideen Eskolari laguntzea nahi ziotela jakitea. Baina, azaldu beharra dugu San Prudencio Eskolaren sorrera posible izan zela hasieran entitate horrek eskolarekin aldeko jarrera

erakutsi zuelako eta eskolari zenbait gela utzi zizkiolako egunean zehar erabiltzeko.

San Prudencio Elkarte Pedagogikoaren irakaskuntza-jarduera 1954/1955 ikasturtean hasi zen, eta 1955eko martxoaren 29ra arte ez zuten Arte eta Lanbideen Eskolako gelak erabiltzeko konponbidea kontuan izan. Orduantxe San Prudencio Elkarte Pedagogikoaren Zuzendaritzako Batzordeak, 1955eko apirilaren 30an, idazki bat bidali zien famili bazkide guztiei. Idazki horretan arazoari topatutako konponbidearekin pozik dagoela adierazteaz gain, arazoa lankidetzaz hitzarmen baten bidez gainditu dutela dio, entitate biren sinadurarekin, alegia.

Hasiera batean hitzarmenaren sinadurak garrantzi handia izan zuen hezkuntza-proiektu horrekin jarraitzeko eta proiektua finkatu ahal izateko, baina ezin dugu zalantzan jarri berezko hezkuntza-gune bat ez izateak hurrengo urtean eragina izango zuela zentroaren bilakaeran.

Eskolaren hasierako urte horietan, San Prudencio Elkarte Pedagogikoko Zuzendaritzako Batzordeak lan bat egin zuen eta zentroa handitu beharra zegoela adierazi zuen, zeren “ikasleek San Prudencio eskolan ematen duten irakaskuntzaren fruituak hartzen hasten zirenean” goi mailako beste zentro batzuetara joan behar zutelako. Hori dela eta, Arte eta Lanbide Eskolara jo zuen. Hango Zuzendaritzako Batzordeari proposamen bat egin zion: ordura arte saiakera pedagogikoetarako kreditua eman badute ere, kreditua handitu behar dute esperientzia osatu ahal izateko, hau da, hezkuntza-eskaintza zabaltzeko.

Proposamenak ez zuen aurrera egin, nahiz eta San Prudencio Elkarte Pedagogikoak lankidetzarako edozein formula onartzen



zuen, eta prest zegoen irakaskuntza eredu horrek etorkizunean herrialde osoan zabaltzearen ondorioz lor zezakeen arrakasta Arte Eskolari atxikitzeko.

Ondoren, 1962. urtean, Elkarteko Batzordeak txosten bat egin zuen irakaskuntza orokorra aztertzeko eta, aldi berean, San Prudencio Eskola zentro diozesiar bihurtzeko aukera ere aztertu zuen.

Proposamenak ez zuen elizbarrutiko erlijio-hierarkiaren onespina lortu, baina ordurako eskolak bazituen batxilergoko gela batzuk Nuestras Señora de los Ángeles parrokiari erantsitako instalazioetan (Bastiturri kalean), Arte eta Lanbideen Eskolatik oso hurbil.

Urtetan San Prudencio Eskolaren eta Arte eta Lanbideen Eskolaren arteko

harremanak errespetukoak eta zuzenak izan zirela esan dezakegu, eta bi entitate horiek irakaskuntzan ari baziren ere, entitate bakoitzak oso adin-sektore desberdinerantz zuzentzen zen: San Prudencio eskolak irakaskuntza arautua ematen zuen haurrentzat eta, berriz, Arte eta Lanbideen Eskolak helduentzako lanprestakuntza ez arautua eskaintzen zuen. Beraz, askotan altzariak ere beste batzuk izan behar ziren. Bestalde, Arte eta Lanbideen Eskolak beste helburu batzuk proposatzen hasi zen, eta San Prudencio eskola helburu horiek geldiarazten zizkien.

HIRU KOKALEKU ALDI BEREAN

Egoera horiek guztiak direla-eta, zenbait gela Arte eta Lanbide Eskolatik kanpo atera behar izan genituen. Beraz, garai batean San

Prudencio eskola hiru eraikinetan zegoen: Arte eta Lanbideen Eskolan, “Casa Social Católica” izenekoa (Vicente Goikoetxea kalea) eta aurrefabrikatutako pabiloi batzuetan (Nikaragua kalea). Arrazoi horregatik San Prudencio Eskolak eskola-garraioa erabiltzen hasi zen. Dena dela, garraio horren irizpidea ez da gaur egungo garraioarena, oso bestelakoa baizik: ikasleak gurasoekin





Arte Eskolara etortzen ziren, handik Nikaragua kaleko aurrefabrikatutako geletara eramaten zituzten, eta eskolak amaitzerakoan, berriz Arte eta Lanbideen Eskolara ekartzen zituzten.

1970eko HEZKUNTZAREN LEGE OROKORRA

Zalantzarik gabe, San Prudencio Elkarte Pedagogikoak behin betiko erabaki batzuk hartu behar izan zituen 1970ean Hezkuntzaren Lege Orokorra onestu zutenean (Villar Palasí Legea izenarekin ere ezagutzen da lege hori, legea egiteaz arduratu zen Ministroarengatik).

Hezkuntzari buruzko aurreko legeak Isabel II.aren garaikoak ziren, Sustapen Ministroa Claudio Moyano zela. Horregatik Moyano Legea izenarekin ezagutzen zuten. Lege hori 1857ko

uztailaren 17an argitaratu zuten. Aurrekariak zirela-eta, erraz imajinatu dezakegu 1970eko Legeak erreforma handia ekarriko zuela, bai hezkuntzako edukiei dagokionez, bai irakasteko erabiltzen ziren eraikin eta horniduren baldintzei dagokionez.

Hezkuntzaren Lege Orokorren ondorioz, ikastetxe guztiek Legean jasotakoaren arabera egokitu behar izan zituzten lokal guztiak administrazioaren baimena lortu ahal izateko.

Orduantxe San Prudencio Eskolari konponbide zaila duen gatazka sortu zitzaion: erreformak egin behar zituen eskolarenak ez ziren instalazioetan eta, gainera,

erreforma horiek ez ziren Arte Eskolaren interesekoak. Konponbidea beste eraikin bat egitea zen, eta hori ezinezkoa bazen, eskolak desagertu baino ezin zuen egin.

ALDEKO JAIOTZA-TASA

Egoera batzuek San Prudencio Eskolaren alde egin zuten, adibidez jaiotza-tasari buruzko datuek. Datu horien arabera, 1960 eta 1975 urte bitartean Espainian urtero batezbesteko 626.000 ume jaiotzen ziren. Eta 1964an kopururik handiena izan genuen, 700.000 ume jaiotzen ziren. Jaiotza-tasa hori oso handia da, batez ere kontuan badugu 90eko hamarkadan urtero batezbesteko 360.000 ume



BEREZKO INSTALAZIOAK

inguru jaiotzen direla.

Vitoria-Gasteiz hiria, industrializazio indartsuaren ondorioz, erritmo bizian hazten zioan. Horregatik, eta jaiotza-tasa handia zelako, eskoletan gero eta leku gehiago behar zuten. Hori dela eta, Presazko Planaren bidez ikastetxe asko eta asko eraiki zituzten eta, batzutan, ikastetxetan bi txandetan egiten zuten lan, txanda bat goizez eta bestea arratsalde. Halaber, zenbaitetan behin-behineko aurrefabrikatutako pabiloiak erabili behar izan zituzten.

Egoera hori zela, bertako agintariek ez zuten gogoko ikastetxe baten itxieraren berria. Bestalde, eta bizitza laburra izan arren, San Prudencio Eskolak ospe ona zuen hirian, bai ikasleen mailari dagokionez, bai esperientzia berritzailea zelako, eskolako haurren gurasoek zuzenean kudeatzen baitzuten ikastetxea.

Eskolaren historiako unerik erabakigarriena 1970eko Hezkuntzaren Lege Orokorra heldu zenean izan zen. Nahiz eta Lege hura diktaturaren garaian egin, une horretan iraultzailea izan zen, eta hezkuntza-edukietan eragina

izan zuen, hiritar guztientzako hezkuntza orokor bat eta berdintasuneko hezkuntza eskaintzen baitzuen eta, gainera, hezkuntza-instalazioen gutxieneko baldintzen oinarriak finkatzen baitzituen.

Ikastetxea izaten jarraitu nahi bazuen, San Prudencio

Batzordea beharrezko gestioak egiten hasi zen berezko instalazio batzuk lortu ahal izateko. Eta inork ez zigun ezer oparitu, baina bidegabea litzateke ideiak bere lekua izan zuela eta bertako, probintziako eta estatuko erakundeek, ahal zuten neurrian behintzat,



Legeak finkatutako baldintzetara egokitu behar zen, eta berezko instalaziorik ez zuenez, edo eraikin bat egiten zuen edo desagertuko zen. Erronka handia zen eta, gainera, San Prudencio Elkarte Pedagogikoaren gaitasun ekonomikoa oso urria zen.

Elkartearen Zuzendaritzako

lagundu egin zigutela ez aipatzea. Finantzazio ofiziala ez da inoiz nahikoa izan, eta Aurrezki Kutxen maileguekin osatu genuen, eta mailegu horiek bazkideen kuotekin ordaintzen ziren. 1979ko apirilean, San Prudencio Elkarte Pedagogikoak 25 urte bete zituenean, San Prudencio Eskolaren eraikin berria

BEREZKO INSTALAZIOAK



inauguratu genuen. Ikastetxe horretan Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko 16 unitate eta eskolaurreko 2 unitate sartzen ziren.

KOOPERATIBA BIHURTZEN DA

Ondoren, bazkide askoren ustez behin betiko urratsa eman behar zuten seme-alabei hurrengo heziketa-tartea eskaini ahal izateko. Hori dela eta, beste ekintza batzuekin hasi ziren, helburua Batxilergo Bateratu Balioaniztuna (BBB) era Unibertsitatara Bideratzeko Ikasturtea (UBI) eskolan ezartzea zen. Eta beste lursail batzuk lortu zituztenean eta finantzazioa lortu bezain pronto, 1990. urtean beste

ikastetxe bat inauguratu zuten. Etapa berri horretarako beharrezkoa ikusi zuten antzinako San Prudencio Elkarte Pedagogikoaren ordez, bazkideei berme juridiko handiagoa eskainiko zien entitate bihurtzea. Horregatik 1986an, bazkide guztien aho bateko akordioaren bidez, Pedagógica San Prudencio, Sociedad Cooperativa Limitada de Enseñanza izenekoak sortu zen.

BATXILERGO BATERATU BALIOANIZTUNA eta UBI

Proposatu bazuten ere beharrezko gestioekin hastea Batxilergoko ikasketetarako eraikin egokia eraikitzeko, eta BBBko ikasketetarako finantzazioa bilatzea, hasiera batez San Prudenciok zuen eraikin bakarreko bigarren solairuko zenbait gela egokitu zituzten BBBko ikasketekin hasteko. 1988/89 ikasturtean, administrazioaren baimena lortu ondoren (eta jadanik tramitatutako eskola handitzeko lanen hasierak baldintzatzen zuen baimen hori), BBBko 1. maila egin zuten, eta Batxilergoen lehen promozioak (eraikin berrian dagoeneko) 1990/91

ikasturtean amaitu zuen. Ikasle horiek 1991/92 ikasturtean Unibertsitatara Bideratzeko Ikasturtea (UBI) egin zuten eta Selektibitateko probetara aurkeztu ziren. Gainera, azterketa horietara aurkeztutako guztiek gaitzitu egin zuten.

LOGSE

1990eko Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legeak (LOGSE) 1970eko Hezkuntzaren Lege Orokorra ordezkatu zuen. Lege horrek ere hezkuntza-eremuak 1004/1991 Dekretuan jasotakora egokitzea eskatzen zuen. Dekretu horrek hezkuntza orokorreko zentroek zer nolako baldintzak bete behar dituzten finkatzen zuen, baina kasu honetan ez genuen ezin gaitzitzeko arazorik izan.

LOGSEk toki gehiago behar genuela planteatu zuen. Zenbait esparrutan gelak jarriak genituen eta, beraz, mugitzeko aukera gutxi genuen eta ez genuen lekurik gure ustez garrantzitsu ziren beste jarduerak batzuk egiteko. Gainera, Vitoria-Gasteiz hiriak dituen ezaugarriak kontuan izanik, kiroldegi estali baten hutsuneaz konturatu ginen.

Kooperatiba mobilizatu egin zen eta antzinako gimnasioan hezkuntza-gune bat egitea proposatu zuen. Orain leku horretan Haur Hezkuntzako gelak ditugu. Eta Haur Hezkuntzako gelak libre gelditu zirenez, berriz zenbait esparru hutsik genituen. Ondoren, kiroldegi pista estalia egiteko lanak hasi ziren. Pista hori egokia da kirol federaturako eta 300 ikuslerentzako tokia du. 1999. urtean lan horiek inauguratu genituen

Orain, eta 50. urteurrenaren ospakizunarekin bat, barneko eremuak egokitzeko lanak egin ditugu, eta horri esker ekitaldi-aretoa dugu.

Gainera, aztertzen ari gara ikastetxea beste hezkuntza lerro batekin handitzeko aukera; asmo handiko lana



da, beharrezkoa eremu horretan, eta San Prudencio Eskolaren egitura behin betiko eutsiko lukeena, etorkizun segurua eta egonkorra bermatuz.

PRESIDENTEAK ETA BATZORDEAK

Pertsonak goratu beharrean, urte hauetan egindako lana goratu nahi dugu, beraz ez ditugu aipatuko orain arte izan ditugun presidente eta batzordekide guztien izenak. Dena dela, oso ezaguna denez eta Presidentzian urte askotan aritu denez, Emilio Álava Sautu jauna aipatu beharra dugu, polifazetiko bera eta Vitoria-Gasteizko industria-laria. Orain dela gutxi semeak aitaren balentria errepikatu zuen: San Migueleko eskailerak igotzea oraindik duten Citroen zahar batekin.

Eskola bat ez da justifikatzen ikasle-talde txiki batek lor dezakeen arrakastagatik, ikasle gehienek bizitzaren aurrean hartzen duten jarrera positibo eta zintzoagatik baizik. Hori dela eta, oso pozik egon behar gara gure ikasleen ibilbidearekin. Dena dela, eta kontuan izanik gure bidea ez dela luzeegia izan, oso pozik gaude ikasle batzuk medikuntzan, zinean, artean, kirolean, etab.ean ere nabarmendu direlako. Jarduera publikoari dagokionez, ikasle ohi batzuk Etxebizitzako, Garraio, Nekazaritzako Sailburu izan dira, bat Herrizaingo-sailburuorde eta beste bat Diputatu Nagusi, eta, noski, beste batzuk nabarmendu dira zenbait kargu pribatu eta publikotan aritzeagatik eta kargu horiek zuzentzeagatik.

SAN PRUDENCIO GAUR EGUN



GURE NORTASUN- EZAUGARRIAK GAUR EGUN

San Prudencio Eskola Gasteizko emaitza peto-petoa dugu, hiritarren ekimenetik sortutakoa, eta hiritarren ekimen horretara zuzendu izan da beti. Gainera, geure buruak zoriondu behar ditugu zeren, nahiz eta une zailak igaro behar izan dituen, zilarrezko ezteiak oso sasoi onean ospatzea lortu baitu.

San Prudencio Eskolak erronka eta lehiaz betetako etorkizuna ere badu. Erronka eta lehia horiei aurre egin diezaieke eta haietatik arrakastaz eta indartuta irten daiteke baldin eta, berriz ere, etorkizunaren giltzarriak

irakurtzen eta interpretatzen dakiela frogatzen badu eta erabaki egokiak hartzen baditu orain.

San Prudencio Eskola hezkuntza-enpresa bat da ondo kokatua eta ospe sendoa duena bai zerbitzuak eskaintzen dituen gizartearen aurrean bai beraren eguneko lana bermatzen duten entitateen aurrean.

50 urte hauetan lortutako arrakasta ez dugu zortearen emaitza. Alderantziz, etengabe ondo egindako lanarekin dago lotua arrakasta. Horrekin batera, kudeaketa-organoetan erakutsitako zuhertasunak eta adostasunaren aldeko jarrerak ere orain dugun egoerara ekarri gaituzte.

SEKTOREAN GURE TOKIA BILATZEN

Enpresek eta entitateek biltzeko eta taldeak sortzeko joera dute, talde horien bidez gremioaren interesak defendatzeko eta, aldi berean, bazkideei beste zerbitzu interesgarri batzuk eskaintzeko.

Tradizioz, irakaskuntza pribatuaren sektorean ikastetxeak erlijio-ordenen esku zeuden, eta haiekin



egiten zituzten enpresa-elkarteak. Baina gure ikastetxeak dituen ezauzgarriak kontuan izanik, ez zuen lekurik horrelako enpresa-elkarteetan.

1986. urtean, lehengo San Prudencio Elkarte Pedagogikoa kooperatiba bihurtu zen eta, 1998. urtean, Euskadiko Unibertsitate-mailakoak ez diren Gaztelera-elebidun



Irakaskuntzako Kooperatiben Federazioan sartu zen. Azkenean lortu genuen bat egitea gure arazo eta nahi dituzten eta gure modukoekin osatutako elkarte batekin.

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak, 1/1982 Legearen ondorioz sortutakoak, lege baten bidez Euskadiko Irakaskuntza Kooperatiben Federazioaren sorrera ahalbidetu zuen, eta 1995etik aurrera elkarte-egitura berri horretan gaude. Irakaskuntzako kooperatibek soilik osatzen duten egitura hori.

Bi kooperatiba-elkarte horien bidez, gobernuko sail batzuetan eta toki eta lurraldeko administrazioetan, ikastetxeen hobekuntzak eta langileen prestakuntza kudeatzen saiatu gara, baina beti kooperatiba formularen berezitasunetatik abiatuta, legegileak formula horrentzat

bakarrak eskatu baitu babesa eta tratu berezia (Konstituziotik bertatik ere).

HEZKUNTZA-SEKTOREAREN BILAKAERA

Urte askotan, hezkuntza-sektorea sektore egonkorra izan da, tradizionala egiteko moduetan, eta ez zegoen kanpo estimuluen menpe (estimulu horiek aldekoak zein aurkakoak izan). 1970eko Hezkuntzaren Lege Orokorrak berrikuntza ekarri zuen, bai hezkuntza-edukiei dagokionez, bai ikastetxeen egiturari dagokionez, eta aipatzekoa da aipatutako erreformak zer nolako eragin soziala izan zuen.

Ondoren, eta Konstituzioaren garaian gaudela, beste lege batzuk heldu zaizkigu (LODE, LOGSE, LOCE), eta, legeberrikuntza horiekin batera, bestelako kanpo baldintza batzuek gure ikastetxeen etorkizuneko bilakaera markatu dute. Dena dela, guztien artean, baldintzarik eraginkorrena eta hezkuntzaren paisaia gehien aldatu duena jaiotza-tasaren beherapena litzateke.

Hurrengo legeek ikastetxea egokitzea behartu gaituzte,

alderdi fisikoa (eremuak egokitu behar izan ditugu) zein alderdi akademikoa (lege berrietan aurreikusitako hezkuntza-edukiak egokitztea).

Ikasleak, gure ikastetxeko arrazoi nagusiak, gero eta gutxiago ziren eta ikastetxeek egoera berriari aurre egin behar izan zioten kanpotik etorritako aukerak eta mehatxuak zein barneko



ahultasunak eta indarrak zorroztasunez aztertuz. Azterketa egin ondoren, krisialdi horiek gainditzen lagunduko ziguten ekintza-planak diseinatuko genituen, horretarako ikastetxea baldintza bakoitzaren egoera berezira egokituz. Garai horretan erabaki oker batek hezkuntza-enpresaren desagerpena ekar zitekeen, eta

SAN PRUDENCIO GAUR EGUN

horixe izan zen gainera ikastetxe askori gertatu zitzaiena.

1996. urtean egindako Hausnarketa Estrategikotik zenbait ondorio atera genituen, eta horiek hurrengo urtean jarraitu beharreko bidea markatu ziguten: lerro eleanitz berria, ingelesarekin goiz hastea, dibertsitateari arreta egitea, eskolaz kanpoko jarduerak eskaintzea, eskolakirola prestakuntzako jarduera moduan lantzeari buruzko hausnarketa, ikastetxerako nahi dugun irudia lantzea, irudi korporatiboa sortzea, etab.

Lan eta hausnarketa horiekin guztiekin informatzeko liburuxka egin genuen. Liburuxka horrek ikas-

tetxearen helburuak zerrendatzen zituen eta geure burua aurkezteko txartela litzateke seme-alabentzako ikastetxea bilatzen zuten gurasoentzat.

Proposatutako helburu horiek guztiak zirela-eta, helburu horiek lortzeko estrategiak diseinatu behar izan genituen eta, aldi berean, horri esker gaur egun helburu horiek guztiak gure ikastetxeko eguneroko zereginen barruan egituratuta ditugu eta operatiiboak dira.

DESBERDINTZEN GAIUZTEN EZAUGARRI GARRANTZITSUENAK

Hausnarketa estrategikoaren ondorioz, ikastetxeak ikasleen arreta pertsonalizatuaren aldeko apustua egin zuen eta,

horretarako, ikasle bakoitzaren ikaskuntza-erritmoa bere ezaugarri berezietara egokitu behar zen.

Horren ondorioz, berezko moduak topatu behar izan genituen dibertsitateari aurre egiteko eta, helburu horrekin orientatzeko kabinete bat jarri genuen, non zenbait jarduera diseinatzen genituen berezko ekintzak eskaintzeko horien beharra zuten ikasleei. Honako hauek izan ziren ekintza horiek:

- Hezkuntza-indargarria
- Curriculum egokitzapen indibidualizatua
- Heziketa bereziko gela
- Curriculum-dibertsifikazioa

Ondoz ondoko urratsetan Lehen Hezkuntzarako eta Bigarren Hezkuntzarako heziketa bereziko zenbait gela ireki zituzten eta, azkenaldian “Garapenaren Nahaste Orokorrak” izeneko gela sortu da.

Pasa den ikasturtean, 2003/04 ikasturtean, hasi ginen berriz ere Beste Hausnarketa Estrategiko batekin, EFQM Ereduan oinarrituzko kalitate-sistema bat ikastetxean ezartzeko prozesua errazteko helburuarekin.



Prozesu hori 2003an hasi genuen.

Prozesu horren bidez gure eskolarako nahi dugun Zeregina, Ikuspuntua eta Balioak definitzen saiatu gara, bai eta Pedagógica San Prudencio, Sociedad Cooperativa de Enseñanza gidatuko duen jarduteko eremua sortzen ere. Helburua kooperatibaren jarduera guztiak zuzenduko dituen eremu orokorra sortzea da.

Horretarako ingurunea aztertu dugu eta egoera asko aldatu dela esan dezakegu, laurogeita hamarreko hamarkadarekin konparatuz. Horrek ikastetxerako aukera gehiago ditugula esan nahi du, nahiz eta gure oraingo egiturak zenbait tentsio sortzen dituen, eta tentsio horiei egoki erantzuten ez badiegu, nahi ez ditugun ondorioak sor ditzakete.

IKUSPUNTUA

Berrikusi dugu gure ikastetxerako nahi dugun ikuspuntua eta, nahiz eta oso zorrotza izan, ondokoa izan da emaitza:

San Prudenciok bere antolaketa-egitura zein hezkuntza-egitura finkatu behar du. Horretarako

hezkuntza-sistema hobeak garatu behar ditu, kalitatearekin (bere zentzu zabalenean) konprometituak.

Gainera, San Prudencio Vitoria-Gasteizko erreferentziako ikastetxetzat hartu behar du jendeak, irudi onagatik eta irakasleen eta ikasleen giza kalitatearengatik nabarmendu behar da, hezkuntza-eskaintza integrala izan behar du eta ardura berezia izan behar du ikasleen eskola-porrota txikia izan dadila.

San Prudencion honako hauek dira eguneroko jardueraren giltzarriko eremuak: ikastetxean parte hartzen duten eragile guztien asetasunarekin eta inpli-kazioarekin ardura eta eragile horien guztien arteko biziki-detza ona.

Kooperatiba eremu ekonomikoan eta finantzarioan sendotzeko ere egiten dugu lan. Sendotze horrek etorkizuneko hezkuntza eta gizarte-proiektua indartuko digu.

GURE ZERBITZU OSAGARRIAK

Garraioa

Ikastetxe kontzertatuetan eskola-plazak esleitzeko,

Hezkuntza-administrazioak gaur egun proposatzen digun baremazioaren arabera, ikastetxea etxetik hurbil izatea da ezaugarririk garrantzitsuena. Hori dela eta, urteen poderioz, gure ikasle



gehienak gure eragin-eremutik datoz, horregatik bost autobuseko garraio-zerbitzua izatetik, ibilgailu bakarreko zerbitzura pasatu dugu.

Jantoki-zerbitzua

Orain dela urte asko hasi ginen zerbitzu hori eskaintzen, baina gero eta eskari handiagoa dugu. Gurasoen lanen ondorioz, askotan zerbitzu hori ezinbestekoa da.

SAN PRUDENCIO GAUR EGUN

Eskolaz kanpoko jarduerak

Hizkuntzak, marrazketa eta musika eskaintzen ditugun jarduera batzuk dira eta familiek nahi dituzten proposamenak egin ditzakete. Baldintza bakarra dago: proposatutako jarduerak,

taldeetara doaz. Orain Karate talde bat ere badugu.

Udalekuak eta Txokoak

Duela urte batzuetatik, ekainaren azken astean eskola-udalekua antolatzen dugu ikasleentzat, Aldundiak

HEZKUNTZAREN

TEKNOLOGIA BERRIAK

Batzuek diote gaur egungo gizarte azkenean Informazioaren Gizarte deituko dugula. Informatikak, komunikazioekin batera, edonori informazioa eskuratzeko aukera ematen dio.

Gaur egungo baliabiderik baliotsuena informazioa da, beharrezko informazioa eskuratzeko ezinbestekoa da erabaki egokiak hartzeko eta, horregatik, eremu horretan informazioa funtsezkoa da.

Aurrekoaren ondorioz, Informazio eta Komunikazioen Teknologien (IKT) hezkuntza-aukerak kontuan izan behar ditugu bi alderdi hauei dagokionez: haien ezagupena eta erabilera. Ezin dugu gaur egungo bizitza ulertu informatikari buruzko kultura maila minimorik gabe.

Bizitza osoan luzatuko den



aurrera eraman ahal izateko beharrezkoa dugun eskaera izan behar du.

Kirola

San Prudencio Kirol Klubak babesten du ikastetxeko kirol-jarduera. Klub horri kapitulu osoa eskaini diogu argitalpen honetan.

Gazteenak “kirol eskoletan” hasten dira eta, ondoren, minibasket, saskibalo, futbito, fútbol 7 eta futboleko

probinzian dituen udal aterpetxeetara goaz.

Uztailaren azken hamabostaldian Udaleku irekiak eta Jolasetarako Txokoak ere antolatzen ditugu ikastetxearen instalazioetan bertan.

Gurasoen Eskola

Azken urte hauetan Gurasoen Eskola abian jarri dugu eta pertsona asko interesatu dira ekimen horrekin. Orain arte dagoeneko hiru guraso-talde sortu dira.



etengabeko prestakuntza IKTren bidez egingo da, eta etengabeko prestakuntza horrek lan-zirkuituetan jarraitzen lagunduko digu hiritar guztiei. Hori dela eta, ezinbestekoa da IKTren ezagutza eta erabilerari buruzko prestakuntza.

San Prudencion aspalditik zenbait jarduera egiten ditugu prestakuntza hori modu egokian eskaintzeko. Horregatik urtero zenbait inbertsio egiten ditugu: ekipoak erosi, sareetan kableak jarri eta nahi ditugun helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak.

AKTIBORIK GARRANTZITSUENA

Onena amaierarako gordetzen da, eta horixe da geuk ere egin duguna. Elementu askok definitu dezakete erakunde baten arrakasta, eta ikastetxe batean elementu horiek anitz izan daitezke: instalazioak, liburutegia, laborategiak, kirol-guneak, etab.

Pedagógica San Prudenciok adieraz dezake, eta okertzeko arriskurik gabe gainera, bere aktiborik garrantzitsuena langile-taldea izan dela eta



izaten jarraitzen dela, hau da klaustroa eta Administrazio eta Zerbitzuetako langileak.

Lan-segurtasunik ezeko guneak izan arren, pertsonen proiektuaren alde jarraitu dute, eta horri esker talde egonkorak osatu ditugu.

Urte hauetan ikastetxeak izan duen hazkundearen ondorioz, taldean pixkanaka beste kide batzuk sartu dira, eta horri esker langile-talde orekatua dugu adinari dagokionez.

Ondo eginiko lana atsegin dugu, eta horretan dugu geure ilusioa. Ilusio horri esker ikasleek arrakasta akademikoak lortu dituzte hezkuntza amaitzerakoan.

Baina bidean irakasle batzuk joan zaizkigu, gehienetan gaixotasunak eramanez, nahiz eta oraindik adin egokia zuten San Prudencio Eskolan beren egiteko modu ona erakusteko. Haientzat da geure oroitzapenik beroena.



1954ko abuztuaren 10eko egun horretan, Asociación Pedagógica San Prudencio sortu berriaren lehenengo Estatutu Sozialak erregistratu genituenean, hazi bat landatu genuen, ez bakarrik eskola berrogeita hamar urte hauetan izan denaren, gaur denaren eta bihar izango denaren hazia, bai eta (eta hau ere garrantzitsua da) orduantxe hezkuntzaren ikuspuntu eta eredu baten lehen urratsak ere eman genituen (eta aitzindariak ginen). Hezkuntzaren ikuspuntu eta eredu hori, zorionez, gaur egun finkatzen doa eta goieneko unean dago: hezkuntzaren lankidetzako eredu alegia.

Edozein gizartean familiaren oinarritzko funtzioa gizartearen kide berrien hezkuntza da. Hezkuntza familiaren ardura naturala eta saihestezina da. XVIII. mendetik aurrera,

Ilustrazioa eta bere ideiak orokortu zirenean, uste sendo batek gero eta indar gehiago du (eta ezin dugu inoiz hori begien bistatik ezkutatu): arrazoiaren indarraren bidez, aurreiritzirik gabekoa eta autonomoa, gizartea eta gizakia guztiz aldatu daitezkeela, pertsona arduratsuak eta beren buruen jabe sortuz. Hori dela eta, intelektual ilustratuak intelektualismo moralaren aldekoak ziren: gizakia maltzurra da ezjakina delako, ezjakintasunarekin amaituz gero, gizakiaren ontasun naturala azaleratuko da. Beraz, pertsonak kultura jasotzeko aukera izaten badute, gizateriak gero eta gizarte libreago, zuzenago, solidarioago baterantz joango da, laburtuz, gizarte giza-tiarrago baterantz.

Ideal horiek, agian batzuk

gaindituak, neurri handi batean indarrean jarraitzen dute eta gure gizartea pentsamendu ilustratuaren oinarri zuzena da. Horren ondorioz, lehendabiziko aldiz, irakaskuntzaren eskubideaz eta betebeharrak hasi ziren hitz egiten, eta betiko baztertu zuten ilustrazioa goi mailakoentzako pribilegioa zela adierazten zuen ideia. Gero eta beharrezkoagoa ikusten zuten pertsonen prestakuntza zabalagoa eskaintzea, nahikoak ez baitziren familian jasotzen zituzten oinarritzko ezagupenak. Egoera honen aurrean, hezkuntzaren eginbeharra familiaren eremuaren aukerak gainditzen hasten da eta Europako toki askotan haurrentzako eskola instituzionalizatzeko beharra sortzen da. Adibide gisa: 1781an Nafarroako Gorteak derri-



gorrezko hezkuntza ezarri zuten bost eta hamabi urte bitarteko haurrentzat. Ikuspuntu hori orokortzen joan zen XIX. mendean eta, batez ere, XX. mendean, orduantxe unibertsal bihurtu baitzuten hezkuntzarako sarbidea eta hezkuntza derrigorrezko egiten dute hamasei urte arte (gaur egun bezala). Horrelaxe sortzen da Hezkuntza Sistema gaur egun ezagutzen dugun moduan.

Prozesu horretan, familiek halabeharrez hezkuntzaren ardurak eskuordetu behar dituzte eta, aldi berean, Estatua ardura horiek bere gain hartzen hasten da (hezkuntza sistema eta hezkuntza publikoa arautzen hasten dira) bai eta beste erakunde batzuk ere, batez ere Eliza (ikastetxe erlijiosotan).

FAMILIAREN ARDURA HEZKUNTZAN

Aurretik esandakoak, guztiok nahi dugun bide eta gizarte hobe bateranzko aurrerapauso eta nabariko aurrerapena ekartzen du, baina arrisku bat ere badu, eta arrisku hori batzutan egi bihurtu da; hori dela eta, ditugun baliabide guztiak erabili behar ditugu arrisku hori saihesteko. Ondokoa da arrisku hori: familiak seme-alaben hezkuntza delegatzeaz gain, ez dira hezkuntzaz arduratuko eta hezkuntza ikastetxeen esku utziko dute. Horrek esan nahi du gurasoek ahaztu egin dutela ikastetxeek beren lana egiten dutela funtzio hori gurasoek utzi dietelako, baina gurasoei ere dagokiela ardura hori.

Egoera horretan familiaren eta ikastetxearen arteko zuloa

sortzen da, eta hauste hori orokortuz gero, gizartearen eta hezkuntza sistemaren artekoa litzateke. Bakoitzak bere bidea jarraituko luke, pertsonen heziketa osoa (guztionak izan behar diren balioetan oinarritutakoa) lortzeko ahaleginak alferrik galduko liriateke eta gizartearen aurrerapeneko ideiek huts egingo lukete.

Gauza bera gertatuko litzateke alderantzizko kasuan,





hau da ikastetxeak ez baditu kontuan hartzen familien kezka eta seme-alaben hezkuntzari dagokionez dituzten beharrak entzuten ez baditu. Eta gaur egun gehiago oraindik, zeren ikastetxeek ez du bakarrik bere gain hartu behar prestakuntza akademiko hutsa, baizik eta beste helburu batzuk izan behar ditu ere (eta baditu): balioetan oinarritutako heziketa, bakerako heziketa, osasunerako heziketa, etab.

Familiek haiek bakarrik prestakuntza, heziketa eta hezkuntza osoa emateko ardura bere gain hartu ezin duten moduan, ezin dugu pentsatu hori guztia eskolek eta ikastetxeek bakarrik egin dezaketarik, familien laguntza eta parte-hartze akti-boa izan gabe. Zoritxarrez, eta ezaugarri orokorra ez bada ere, adibide anitzek erakusten digute familiek eta eskolek elkarrekin lan egiten ez dutenean oso zaila dela (ezinezkoa ez esateagatik) haur eta gazteen heziketa egokia. Etxean eta eskolan mezu desberdinak eta kontrajarriak entzuten dituztenean erreferentziak galten dituzte

eta ezin dituzte bereganatu eta bameratu heziketaren helburu diren balio guztiak.

Gure gizarteak orokorrean hori guztia badaki eta, horregatik hezkuntzaren legeriak zenbait mekanismo aurreikusi eta ezartzen ditu familiek seme-alaben heziketan izan behar duten ezinbesteko parte-hartzea errazteko, "partaidetza-heziketa" izenarekin ezagu-tzen duguna sortzen saiatuz.

PARTE-HARTZEA KOOPERAZIO- EREDUAREN BIDEZ

Baina aukera guztiek, mekanismo guztiek ez dute eraginkortasun bera lan horretan. Irakaskuntzako Kooperatibak egitura ezin hobea dira helburu hori lortzeko. Kooperatibetan familiek beste ikastetxetan duten parte-hartzeko baliabideak izateaz gain, bazkide kooperatibistak direnez, beren seme-alaben hezkuntzarekin inplikazio zuzenago eta hurbilago izan behar dute. Batzarren eta kudeatzeko organo anitzetako ordezkarien bidez, ezarri egiten dituzte, irakasleekin batera (ezin baita beste moduan izan), ekintza pedagogikoaren oinarritzeko printzipio estrategikoak, heziketaren oinarri izan behar

diren baloreak eta ikaslearen presta-kuntzaren gida izan behar diren lerro nagusiak, eta eskolaren kudeaketa gain-begiratzen dute.

Pedagógica San Prudencio Sociedad Cooperativa de Enseñanza bezalako eskola batean ez gara soilik parte-hartzeaz ari, beste urrats bat eman dugu. "Kooperazioaz" ari gara (eta kooperatzea helburu bera lortzeko besteekin elkarrekin aritze esan nahi du), familien eta irakaslearen arteko kooperazioa elkarrekin dugun ardura bikain hori lortzeko: gure seme-alaben, ikaslearen prestakuntza osoa pertsona gisa, eta, horrekin batera, XVIII. mendeko pentsalari ilustratuek nahi zuten gizarte hori lortzen saiatzea; gero eta gizarte justuago, solidarioago, demokratikoago, zoriontsuago. Hezkuntzaren eredu kooperatiboa da.

Horixe da San Prudencio Eskolak hasiera-hasieratik, orain dela berrogeita hamar urtetik, hezkuntzari buruz duen ikuspegia, bai eta bere helburu nagusia ere. Gainera horrela jarraitu behar du izaten hurrengo berrogeita hamar urtean, eta kooperazio horretan sakontzeko eta hobetzeko moduak bilatu behar ditugu.

KIROL KLUBA

URTEKO KIROLA SAN PRUDENCION

Egun hauetan gure eskolaren 50eko urteurrena ospatzen dugu eta gaur egun ezin dugu kirol-jarduerarik gabeko eskolarik ulertu, kirolak gure gizartean garrantzi eta itzal handia baitu.

Kirola, eta batez ere eskola-kirolari dagokionez, ez da lehia hutsa: zenbait balio irakasteko metodorik onenetakoa dugu (adibidez lan-taldea, adiskidetasuna eta besteenganako errespetua). San Prudencio Kirol Klubean harro gaude zeren hasierahasieratik gure helburu nagusienetako bat ondokoa izan baita: alde batetik, kirolarien prestakuntza integrala, bakoitzaren bilakaerak eta hazkunde pertsonalak txapelketetako kiroltako emaitzek baino garrantzi handiagoa izan dute beti, eta bestalde, gure kirolari guztiak ordezkatuta gauden txapelketa eta lehiaketetan parte hartzen duten taldeetan sartzen ditugu.

Lan hori onartu egin ziguten 2003. urtean, eskola-kirolaren eremuan egindako lanarengatik Jorge Diez Saria eman zigutelako.

Integrazioaren printzipio horrekin jarraitzen saiatzen



gara eskola-kirolaren maila guztietan, nahiz eta aipatu behar dugun kirol federatuen beharrezkoa dela lortutako maila mantendu eta sendotzea eta, horregatik, helburu nagusien artean, taldearen emaitza onak ere baditugu, eskola garaia gainditzen duten eta gure eskolan kirola egiten jarraitu nahi duten kirolariei eskaintza erakargarria egin nahi diegulako.

Orain dela mende Erdiko kirol-jarduera, eskolako diziplinan sartzen dena zein eskolaz kanpokoa, ez zen gaur egun ezagutzen duguna bezalakoa; zeren orain dela urte batzuk foru araudia, eskola-kirola egiteko beharra dela-eta, aldatu baitzen, eta alderdi hori garrantzi handikoa izan da ikastetxe bakoitzean ikasleen heziketa

planifikatzeko orduan.

Zaila egiten zaigu imajinatzea nolakoa zen eskola-kirola orain dela 50 urte, ez baitugu garai horretako daturik.

Baina garai horretan dagoeneko bazegoen norbait eskolaz kanpo zenbait kirol-jarduerak antolatzen arduratzen zena, betiere bere aukeren eta baliabideen arabera, noski.

Lerro hauetan ezinezkoa zaigu



KIROL KLUBA



azken 50 urte hauetan eskolaren kirolaren garapena posible egin duten guztiak aipatzea, eta lan desinteresatua egin dute guztiz. Baina gogoratzen saiatuko gara eta Kirolaren 50 urte hauetako historian ditugun zenbait gogorapen berreskuratuko ditugu.

Eskolaren kirol instalazioak Arte eta Lanbideen Eskolan genituen garai horretakoa, eskolaren irakasle Angel Izaguirreren lekukotasun garrantzitsua dugu, eta ondoko hitzekin azaldu egiten digu zer nolako esperientzia zuen gure ikastetxean eskolaz kanpoko kirolarekin hasi zirenean:

- *“Geletatik Plazara ateratzen*

ginen. Plaza, eskolaren patioa izateaz gain, bertako hiritarrak paseatzeko eremua ere bazen. Bertan, jolas-orduetan, futbol-zelaia jartzen genuen. Ateak bankuetako hanken arteko eremuak ziren. Askotan teniseko pilotekin jolasten genuen, ezinezkoa baitzen tamaina horretako zelai batean arauzko balio batekin jolastea”.

- *“Gero eta interes handiagoa zuten patioiko txapelketa horiek. Talde bakoitzak 5 jokalaria zituen. Nahiz eta entrenatzeko zelairik ez izan, Eskolen Txapelketan parte hartu genuen eta finalerdira heldu ginen”.*

- *“Taktikak gelan eta plazan prestatzen genituen”. – “Eskolen Txapelketarako kamiseta batzuk utzi zizkiguten”. – “Lagunarteko partidu batzuk egin genituen, eta behin baino gehiagotan gol-kopuru handia sartu ziguten”.*

- *“Mendozako zelaietan hasi ginen entrenatzen. Astean bitan edo hirutan entrenatzen genuen (oraingoan benetako baloiak erabiltzen genituen)”.*

- *“S.Prudencio Eskola ezusteko talde bihurtu zen, ni entrenatzailea nintzen eta nire*

lankide Maruja eta M^a Carmen Ibaibarriaga ezin bananduzko delegatuak izan ziren eta programako partidu guztietara joaten ginen. Orduantxe futbitoia sortzen da indar handiarekin eta modu horretan gogor sortzen da Arabako oinarriko futbolaren beste etapa bat”.

Behin instalazio berrietan geundela, eremu eta jolasteko toki hobeak genituela, eskolaz kanpoko kirolak beste dimentsio bat hartzen du. Eskola-kirola gure jardueraren gehiengoa zen, zeren ikasle handienak OHoko 8. mailakoak baitziren.

Kirolaren antolakuntza eta koordinazioa hain bananduta zegoen ezen pertsona bakoitzak kirol-espezialitate desberdinen ardura baitzuen.

84/85 denboraldian Agustín txikiaren futbolaz arduratzen zen, J.M.Salazar futbolaz arduratzen zen eta Iñaki Garayalde saskibaloia ardura zuen. Denboraldi horren ostean, futbola arduradunik gabe gelditu zen, beraz, Martín García Goyak orokorrean kirolaren ardura hartuko du (memoria hiruhilekoa, abonua, dirulaguntzak, etab.), Iñaki

Garayalderen laguntzarekin (saskibaloia koordinazioaz arduratzen zen Iñaki).

87/88 denboraldian kirola antolatzeko lanetan Tomas Martínez hasten da. Epe horretan benetako kirol kluba antolatzeko bideari ekin genion, eta kirol klubak eskolan egiten genituen jarduera guztiak bilduko zituen.

1990. urteko uztailean gaur egungo San Prudencio Kirol Klubaren lehen Zuzendaritzako Batzordea (behin behinekoa) eratu zen. Antolakunde horrek independentzia ekonomiko eta juridikoa zuen, baina eskolarekin lotura osoa zuen.

Gaur egun indarrean jarraitzen du 2001. urtean aukeraturako Zuzendaritzako Batzordeak.

Urte hauetan, pertsona askok izan dute nolabaiteko eginbeharra eskola-kirola antolatzeko, ez baitzegoen egituraren bat eskolaz kanpoko kirol jarduera guztiak biltzeko.

Halaber, eskaintzen diren jarduera guztiak proportzionalak dira abian jartzeko adierazitako maitasun eta

gogoekin. Jarduera batzuek, zoritxarrez, ez zuten aurrera jarraitu, pertsona interesatu gutxi izan genituelako edo jarduerak mantentzea zaila izan zelako beste arrazoi batzuek zirela eta.

Kirolari gehien biltzen dituzten diziplinak saskibaloia eta futbola dira. Horren arrazoa honakoa da: alde batetik, talde bakoitzean kide kopuru handia bildu daitezkeela eta, beste alde batetik, kategori askotan parte hartu dezaketela.

Hala ere, San Prudencioaren historiaren kirol eskaintzak era askotakoak izan dira, eta ondoko jarduera hauek izan ditugu, beste batzuen artean:



Boleibola

Diziplina hori kirol-jardueren artean izan genuen, eta bost talde izan genituen zenbait txapelketetan.





Eskubaloia

Eskaintza txikia izan zuenez, urtebete baino ez zuen iraun jarduera hori.

Zikloturismoa

Diziplina hori abian jarri genuen 92/93 denboraldian, eta urte horretan jarduerarekin amaitu genuen, erantzukizun zibil, aseguru, etab.ei buruzko gaietan zailtasun handiak baikenituen.

Beisbola

Kirol horren ekimenak harrera bikaina izan zuen eta bi denboralditan mantendu genuen, baina kirol horretan lehiaketa gutxi daudenez, jarduera gain behera etorri zen.

Gimnasia Erritmikoa

Dorleta Estenagak jarduera eman eta antolatzen zuen eta ikasle kopuru handia zuen.

Atletismoa

Angelica Martínez jarduera honetako kirolarien entrenamenduetaz arduratu zen, patio eta alboko parkeak erabiltzen zituzten entrenatzeko zelai moduan.

Euskal Dantzak

Nahiz eta berez kirol jarduera ez izan, modalitate hau zenbait urtetan egin genuen eta parte-hartze maila bikaina zen.

Judoa

Kirol jardueren hasieratik irakatsitako Arte Martzialen artean, judoa irakatsitako lehen diziplina izan zen.

Karatea

Gaur egun oraindik jarraitzen dugu jarduera hori eskaintzen eta 25 ikasle baino gehiago ditugu. Eskola ordezkatu zuten lehen aldi oso emaitza onak atera zituzten eta zenbait domina lortu zituzten.

Kirolaren urte horietako balantzea egin beharko bagenu, balantze hori oso positiboa litzateke.

Guztion lan eta ahaleginei esker, hamar kirolari baino ez zuen talde horretatik (Arabako Txapelketa baten

Eskola ordezkatu zuten lehenengoak), gaur egun eskolaren izena probintziako edozein txokora eramaten duen 325 kirolari taldera pasatu gara.

Azpimarratu beharko genuke, halaber, eskolan kirolarekin hasi ginenetik, inplikazio handia izan dugula eskolaz kanpoko jardueretako garrantzi handiko gertakizunetan, adibidez Inauterietan parte hartu dugu eta kirol eremuan antolatzen diren beste jarduera batzuetan (adibidez futbol eskolen jaia edo Kirol eta Kultura Jardunaldiak). Jarduera horiek ehunka bisitari erakartzen dituzte, eta irudi ona eta ongi etorri beroa ematen saiatzen gara.